Kontsulta berezia

Goiz hartan, ez nintzen lar ondo sentitzen, eta amarekin joan nintzen Larrialdietara. Sukarra eta izugarrizko buruko mina nuen. Medikuaren hainbat galderari erantzun ondoren, gripea neukala esan zidan eta etxean bost egunez deskantsatzen egon beharko nuela. Ezin nuen sinetsi. Hurrengo egunean Italiara ikasketa bidaian joatear ginen. Baina ezin izango nintzen joan.

Guztiz lur jota atera nintzen kontsultatik. Jendea niri begira geratu zitzaidan, hain nuen aurpegi goibela. Amak ez zekien ni kontsolatzeko zer esan ziezadakeen, oso ilusio handia bainuen ikasketa bidaiara joateko. Bat-batean edadetu bat hurbildu zitzaidan. Zer gertatzen zitzaidan galdetu zidan eta arazoa azaldu nion. Agureak honela erantzun zidan:

> *"Antzeko zerbait gertatu zitzaidan niri txikia nintzela. Hanka apurtu nuen uda hasieran eta ezin izan nintzen ibili bi hilabetetan. Uda osoa galduko nuela uste nuen, baina ez zen hala izan. Lehenengo egunetan guztiz lur jota egon nintzen, hanka apurtu ez banu egin nitzakeen gauzetan pentsatzen pasatzen bainituen orduak. Geroxeago, baina, konturatu nintzen ez zuela merezi goibel bizitzea. Bizitza laburra da, eta pozik bizi beharra dago. Egoera ezin baduzu aldatu, zertarako kezkatuko zara? Zoriona ez dago beste edozeren baitan, norberaren baitan baizik, izan ere geure zoriontasuna edozein helmugan kokatzen badugu, ez gara pozik biziko bertara heldu arte. Eta bizitzan uneoro disfrutatzen jakin beharra dago, bidea gozatzen. Horregatik, denbora pasan gitarra jotzen ikasteari ekin nion, eta konturatu nintzenerako, uda igaro zen. Beraz, gozatu momentua."*

Irri bat atera zitzaidan. Irakaspen ona eman zidan agureak, eta konturatu nintzen ez duela merezi gerta izan zitekeenean pentsatzea, benetan gertatzen ari dena zoriontasunez gozatzea baita garrantzitsuena. Hogeita zortzi urte pasatu dira egun horretatik. Psikologia ikasketak egin nituen eta ospitale batean lanean ari naiz orain, jendea laguntzen, agure hark ni lagundu ninduen moduan.